

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 788/2016 Erabakia, azaroaren 25ekoa, M<sup>a</sup> Jesús Carmen San José López Andrea Funtzio Publikoko zuzendariaren kargu uztea onartzea eta egindako lanarengatik eskerrak ematea**

Abuztuaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 457/2015 Erabakiaren bidez, M<sup>a</sup> Jesús Carmen San José López Andrea Funtzio Publikoko zuzendari izendatu zen.

Horretaz gain, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluek eta Arabako Foru Aldundiko Goi Karguen eta Behinbehineko Langileen Erregimena arautzen duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauak 2. eta 3. artikuluek goi karguak eta konfiantzako karguak izendatzea eta kentzea Diputatuen Kontseiluari dagokiola ezartzen dute.

Horregatik guztiagatik, M<sup>a</sup> Jesús Carmen San José López jaunaren kargu uztea ikusi da, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. M. Jesús Carmen San José López andrea Funtzio Publikoko zuzendariaren kargu uztea onartzea eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena. Erabaki honek 2016ko azaroaren 28tik aurrera izango du indarra.

Hirugarren. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**